Código de validación/*Balidazio kodea*
1G4Z0N312W2C1I1O18RQ

**ASUNTO/*GAIA***

| |
|---|
| Propuesta de Resolución sobre la forma de aplicación del permiso de lactancia y otros derechos a las concejalas y concejales. \|*Zinegotziei bularra emateko baimena eta beste eskubide batzuk aplikatzeko moduari buruzko ebazpen-proposamena.* |

| | | |
|---|---|---|
| Comisión Informativa de Asuntos Generales-Pleno 20-06-2017 | | |

**PROPUESTA DE RESOLUCIÓN/*PROPOSATUTAKO EBAZPENA***

*Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:*

*"Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25 artikuluan ezarritakoaren arabera, Ermuko Udalari erregelamenduak egiteko eta bere burua antolatzeko, bereziki bere gobernuko organoen funtzionamenduari, akordioak hartzeko erregimenari eta bere kideen estatutuari dagokionean, emaniko eskumenez baliatuz, Ermuko Udalak ondoko erabakiak hartu ditu, zinegotzien bularra emateko baimena izateko eskubidea arautzeko. Helburua amatasuna edo aitatasuna eta udal eginkizuna bateragarri egitea da, eskubide hori lotuta dagoelako berez eta, ondorioz, ETELen 25.6 artikuluan araututako eskubidearen kausa delako, amatasun edo aitatasun kasuetan.*

*1. Orokorrean zinegotziek Korporazioaren zerbitzuko langileek duten iraupen-epe bera izango dute amatasun edo aitatasun eskubideaz gozatzeko, elkarrekin duten antzekotasunagatik. Une honetan*

Por el Pleno de la Corporación se adopta el siguiente acuerdo:

"En el ejercicio de la competencia conferida al Ayuntamiento de Ermua en materia de potestad reglamentaria y de autoorganización, en particular, en lo relativo al funcionamiento de sus órganos de gobierno, su régimen de acuerdos y el estatuto de sus miembros, establecida en el artículo 4 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, y en el apartado 3 del artículo 25 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, el Ayuntamiento de Ermua adopta los acuerdos siguientes a fin de regular el derecho al permiso de lactancia de las concejalas y concejales como medida para favorecer la conciliación de la maternidad o paternidad con el quehacer municipal, al estimar que dicho derecho está consustancialmente unido y, por tanto, trae causa del derecho regulado en el artículo 25.6 de la LILE, en los casos de maternidad o paternidad.

1º. Con carácter general, las concejalas y concejalas disfrutarán del derecho a la maternidad o paternidad por el mismo plazo de duración que se reconozca al personal al servicio de la Corporación, por

*eskubide hori 126 egutegi-egunekoa da, baina guraso biek lan egiten badute, batek bakarrik, beraien aukeran, egikaritu ahal izango du eskubidea.*

razón de analogía, que en el momento presente alcanza los 126 días naturales, si bien sólo podrá ser ejercido por uno de los progenitores en caso de que ambos trabajen, a su elección.

*2. Antzekotasunezko aplikazioaren arrazoi berarengatik zinegotziek bularra emateko baimena izateko eskubideaz gozatuko dute Korporazioaren zerbitzuko langileen baldintza berberetan eta iraupen-epe berberez, une honetan haurrak urtebete bete arte luzatzen dena.*

2º. Por la misma razón de aplicación analógica, las concejalas y concejales disfrutarán del derecho al permiso de lactancia en las mismas condiciones y por el mismo plazo de duración que se reconozca al personal al servicio de la Corporación, que en el momento presente se extiende hasta que el menor o la menor cumpla un año.

*Bularra emateko eskubidea egunean ordubete lanean ez egotea da. Zinegotziak bi zatitan (bi ordu erditan) zatitu dezake denbora hori, baina guraso biek lan egiten badute batek bakarrik egikaritu ahal izango du eskubidea, beraien lanaldia, hasieran edo bukaeran, beraien aukeran, ordu erdiz murriztuz. Halaber ordu horiek guztiak batera, lanaldi osotan pilatzea aukera dezake, hots, 15 egunetan.*

El permiso de lactancia consiste en el derecho al disfrute de una hora de ausencia del trabajo que se podrá dividir en dos fracciones (dos medias horas) por la concejala o concejal, si bien sólo podrá ser ejercido por uno de los progenitores en caso de que ambos trabajen, con reducción de su jornada en media hora, al comienzo o al final de la jornada, a su elección, o bien puede optar por acumularlo en jornadas completas, lo que supone 15 días.

*Zinegotzien kasu zehatzean egun horien zenbaketa modu naturalean aplikatzeko zailtasuna dela-eta, bularra emateko baimen-egun bat Udalbatzarraren edota Gai Orokorren eta Udalbatzarrak aztertu beharreko gaien bilkura bat bestekoa izango da.*

Dada la dificultad de aplicar, de manera natural, el cómputo de estos días en el caso de las concejalas o concejales se entenderá que un día de permiso de lactancia se corresponde con el de celebración de una sesión del Pleno de la Corporación o de las Comisiones Informativas de Asuntos Generales y de Pleno, respectivamente.

*Egun berean aipaturiko informazio batzorde edo Udalbatzarraren bilkura bat baino gehiago suertatzen badira, egun hori bularra emateko baimen-egun bakar bat legez zenbatuko da.*

Cuando en el mismo día se celebren sesiones consecutivas de las mencionadas Comisiones Informativas o del Pleno de la Corporación se entenderá que se trata de un solo día de permiso de lactancia.

*3. Bai amatasun- edo aitatasun-eskubidearen kasuan, bai bularra emateko*

3º. Tanto en el supuesto en que se ejerza el derecho a la maternidad o

Código de validación/*Balidazio kodea*
1G4Z0N312W2C1I1O18RQ

*eskubidearen kasuan, aipaturiko denboran zinegotzia kide den korporazio-organoen bilkuretara ez joateko eskubidea aitortzen zaio zinegotziari, bere botoa talde politikoko bozeramalearen edo, hala denean, beste zinegotzi baten esku utzi ahal izango duelarik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25.6 artikuluan aurreikusten den moduan eginez.*

*4. Zinegotzi interesdunak gaixotasun larria edo luzaroko ezgaitasuna duenean ere bera kide den korporazio-organoen bilkuretara ez joateko eta botoa inoren esku uzteko eskubidea aitortzen zaio Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25.6 artikuluan aurreikusitako baldintzetan, baina horrek ez du hautestontzietatik sortutako ordezkaritza aldatzen, Ermuko Udalean zinegotzi interesdunaren urruneko partaidetza sinadura digitala txertatuko duen egiaztagiri elektroniko bidez bermatzeko behar den baliabide elektronikorik ez dagoen bitartean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17.1 artikuluan ezartzen den moduan.*

*Gaixotasun larri edo luzaroko ezgaitasun kasutzat edukiko da jardun gabe egongo dela aurreikusten den denbora egutegiko hiru hilabete baino gehiago izan daitekeenean. Hori medikuaren txosten batekin edo eskumen hori duen pertsonalak emaniko baja-agiriaren kopia batekin frogatuko da, berori, egoeraren berri eman eta jarraipena egiteko, Udal Idazkaritzan entregatuz,*

paternidad y de lactancia, se reconoce a la concejala o concejal interesado el derecho a no asistir a las sesiones de los órganos de la Corporación de que forme parte durante el tiempo señalado, pudiendo delegar su voto en la portavoz o el portavoz del grupo político municipal al que esté adscrita o adscrito o, en su caso, en otro concejal o concejala, en la forma prevista en el artículo 25.6 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

4º. Asimismo, se reconoce a la concejala o concejal interesado el derecho a no asistir a las sesiones de los órganos de la Corporación de que forme parte y a la delegación del voto, en los términos del artículo 25.6 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en los casos de enfermedad grave o de incapacidad prolongada, sin que ello suponga alterar la representación surgida de las urnas, en tanto el Ayuntamiento de Ermua no pueda contar con los medios electrónicos necesarios para garantizar su participación a distancia, mediante el empleo de un certificado electrónico que incorpore la firma digital del concejal o concejala interesada, en los términos previstos en el artículo 17.1 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Se entenderá que se produce el supuesto de enfermedad grave o de incapacidad prolongada cuando el tiempo previsto de inactividad pueda ser superior a tres meses naturales, que se acreditará mediante un informe médico o copia del parte de baja emitido por el personal a quien corresponda esta competencia, que deberá entregarse en la Secretaría del Ayuntamiento a los solos efectos de proceder a su comunicación y seguimiento.